


Cold&Clack

Cold & Clack izeneko enpresa gara eta **bi produktu** eskaintzen ditugu, gure enpresan bertan ekoiztu eta saltzen ditugunak: zapatu zolak alda daitezkeen zapatilak eta temperatura erregula daitezkeen kamiseta iragazgaitzak. Hau guztia posible izan ahal izateko, **Erreterian biltegi** bat alokatu genuen, enpresa asko han kokatuta daudelako.



Zapatilen ideia, zapatilen erosteko beharra murrizteko pentsatu genuen. Hau da, gure ustez, kontsumoa murrizteko aukerarik onena delako Zergatik? Geroz eta zapatila gehiago erosita, diru gehiago gastatzen delako, baina gure zapatilekin, gastu horiek saihestuko genituzke. Gure produktua erosiz, **oinetako pare bakarra izatearekin nahikoa** izango litzateke.




Bestalde, **temperatura erregula daitezkeen kamiseten salmenta** dugu. Helburua, bereziki, zonalde hotzetan edo beroetan bizi diren pertsonen hainbeste arropa ez janztearen beharra izatea da. Ondorioz, ez lukete arropan diru asko gastatu behar, baizik eta, gure kamisetarekin nahikoa izango litzateke.

Gure produktuak **online** saltzen ditugu, web orri baten bitartez. Hortaz aparte, **sare sozialak** ere dauzkagu, gazteek gure produktuak ezagutzeko eta erosteko. Gainera, Andoaingo **Ormendi kirolak** dendan gure produktuak salmentan daude.



Bi produktu hauek **adin guztietako kontsumitzaileentzat** dira. Zapatilaren neurriak kontsumitzaile guztientzako dira eta kamisetetan kolore desberdinak eta neurri guztikoak daudelako salmentan.

Kamiseten konpetentzia altua da, hainbat enpresa saltzen dutelako, baina gure produktua **beste enpresak ez dituzten ezaugarriak** ditu; saltzen ditugun kamisetak kolore eta neurri desberdinetakoak direlako eta beste enpresenak, berriz, beltza kolorekoa eta neurri oso gutxi dituzte.



Zapatilletan berriz, konpetentzia gutxi daukagu ohikoa ez den produktua delako. Besteekin desberdintzen gaituenak unisex direla da. Gainera, **bi modelo** desberdin dauzkagu: lehenengoa, kirolan aritzeko da eta bestea egunean zehar erabiltzeko. Egunerokotasunerako zapatiletan, zapato zolak altuera desberdinak ditu zure gustoaren arabekoak izateko. Kirola

egiteko direnak, berriz, transpirableak diren zapato zolak dira eta lur desberdinetan erabiltzeko dira.

Agenda 2030aren ikuspegiaren arabera, hezkuntza-sistema gaur egungo eskakizunetara egokitu behar da garapen iraunkorra eta munduko herritar izatea sustatzeko. Horregatik, Cold & Clack-en Agenda 2030-reko baloreekin ados gaudenez, gure produktuak GIH-ren helburuetara egokitu ditugu eta horren ondorioz, bertan agertzen diren hainbat helburu betetzen ditugu:



5-Genero-berdintasuna: Guk egiten eta bezeroei eskeintzen dizkiegun produktu guztiak **unisex** dira. Horri esker, edonor eroso sentituko da gure produktua erabiliz baztertuta sentitu gabe.



10-Desberdintasunak murriztea: Zapatila eta kamixetetan **neurri asko** dauzkagu, jendeak baztertuta ez sentitzeko, hau da, gure produktuak nahi duten pertsonak eros dezakete.



12-Ekoizpen eta kontsumo arduratsua: Gure produktuei esker, pertsonen kontsumo arduratsua izaten laguntzen diegu. Horregatik, saltzen ditugun bi produktuek arropa edo oinetako asko ez erosteko sortu ditugu, gaur egun jende asko kontsumo altuak izaten dutelako.